



# **Ikastetxearen Urteko Memoria**

---

**2017  
2018**

# **Aurkibidea**

---

- 1. Sarrera eta justifikazioa**
- 2. Helburu orokorrak eta jardueren ebaluazioa**
  - 2.1. IUPean proposatutako helburuen lorpen maila eta garapena**
  - 2.2. Irakasleriaren ikaskuntza-prozesuen ebaluazioa**
- 3. Irakaskuntza-jardueren programaren ebaluazioa**
  - 3.1. Ohiko irakaskuntza-jardueren programaren ebaluazioa**
    - 3.1.1. Antolaketa eta funtzionamenduaren aspektuak**
    - 3.1.2. Esperientziak, programak eta proiektuak**
    - 3.1.3. Prestakuntza eta garapen profesionala**
    - 3.1.4. Irakasleriaren koordinazioa**
  - 3.2. Irakaskuntza-jarduera osagarrien programaren ebaluazioa**
- 4. Eskolaz kanpoko jardueren planaren ebaluazioa.**
- 5. Eskolako zerbitzuen ebaluazioa**
- 6. Ekonomi-kudeaketarako planaren ebaluazioa**
- 7. Hezkuntza-komunitateari informazioa helarazteko planaren ebaluazioa**
- 8. IUPren garapenaren jarraipenaren ebaluazioa.**
- 9. Ondorioak eta hobekuntza proposamenak.**

# 1. Sarrera eta justifikazioa

2017-18 ikasturteko memoria da hau. Memoria honetan, Ikastetxean Urteko Plana zenbateraino bete den aztertuko dugu, hau da, ondorioak atera eta hurrengo urterako hobekuntza proposamenak egingo ditugu. Honetaz gain, lehentasunak jarriko ditugu, hurrengo Urteko Planean helburutzat hartuko direnak.

## Ikasturteko planaren garapenean eragina izan duten aspektu edota faktoreak

Ikasturteko helburuak lortzeko hainbat ekintza garatu dira ikasturteko planean aipatutakoak eta memoria honetan balioztatuak.

## Egiteko prozedura eta lan-metodologia

Urteko Planean aipatutako guztia aurrera eraman ahal izateko Klaustroaren inplikazioa eta elkarlana egon da. Baita Batzordeen lana, Berritzegunearen aholkularitza, beste ikastetxeekin izandako harremanak eta Guraso Elkartearen inplikazioa behar-beharrezkoak izan dira.

## Hezkuntza-komunitatearen ekarpenak

	bai	ez	zer-nola
Klaustroa	X		➤ Planifikatutako ekintzak aurrera eramaten.
Batzorde pedagogikoa	X		➤ Zikloen arteko koordinaketa indartzen ➤ Jasotako informazioa Zikloetara eramaten eta komentatzen. ➤ Zikloetan dauden arazoak aztertzen, lehentasunak markatzen eta eskaera puntualak bideratzen.
Maietako taldeak			➤ Geletako beharrei erantzuna ematen.
Elkarbizitza taldeak	X		➤ Eskola Komunitate partaide guztien elkarbizitza osasuntsua bultzatzen.
Euskaraz Bizi taldeak	X		➤ Euskararen erabilera indartzen
Familien ordezkariak (Guraso Elkarte)	X		➤ Sortzen diren arazoak tutoreei eta zuzendaritza taldeari jakinarazten eta eskatzen zaienean geletan behar diren laguntzak bideratzen.
OOG	X		➤ Urteko plana eta memoria aztertzen eta onartzen, eta proposamenak egiten
Zuzendaritza taldea	X		➤ Ikastolaren funtzionamendu egokia ziurtatzen eta suertatzen diren arazoei aurre egiten.
Admin. eta Zerbitzuen langileria	X		➤ Ikastolako zereginak aurrera eramaten lagunduz
Beste batzuk	X		

## Datorren ikasturtean jarraipena izango duten urteko planaren aspektuak

- Aurreko puntuan aipatutako ekarpenei jarraipena emango zaie.

## 2.IUPean proposatutako helburuen lorpen maila eta garapena

### 1.- MATEMATIKA ETA ARTE HEZKUNTZA (PLASTIKA) IKASGAIEN PROGRAMAZIOAK BERRITU, ZIKLOEN ARTEKO KOHERENTZIA ZAINDUZ.

#### ONDO EGINDAKOA. HELBURUEN LORPEN MAILA

- Nahiz eta gure UPean bi arlo hauek aipatu, ondoren programazio guztien gainean lan egin dugu eta, gaur egun Curriculum berrian, HEZIBERRIN oinarrituta daude.
- Programazioak berritzeko aproposa eta lagungarria izango zelakoan, PEGeko lehen modulua aukeratu genuen, hau da, Konpetentziak garatzen laguntzeko markoa.
- Lan polita egin da lorpen adierazleak hiruhilabeteka sailkatuz eta tauletan jarriz, baina oraindik bukatu gabe (begiratu programazioak )

#### HOBEKUNTZARAKO PROPOSAMENAK ( Orokorrean eta ez bakarrik helburuan agertzen ziren bi arlo hoietan, Matematika eta Plastika, hain zuzen ere)

- Programazioak gure lanareko erabilgarria eta beharrezkoa den tresnatzat hartzea.
- Edukiak eta ebaluazio irizpideak mailakatuta daudela ziurtatu.
- Zikloen arteko eduki, adierazleen,... inguruko koherentzia bermatu, ondoren **gutxiengoak adostu** ( bukaerarako probak prestatu daitezke eta aplikatu)
- Arazo egoerak proiektuetan txertatu eta honekin batera U.Dak berritu.
- Oinarrizko konpetentziak **ebalutzeko** adierazleak eta prozedura adostu.
- Azkenik, konpetentziak kontutan izanik, boletinak egokitu.

#### HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK KONTUAN HARTUZ, LEHENTASUNAK MARKATU

- Aurreko hobekuntzarako proposamenak kontutan izanik, erabakiak hartu eta ondoren, egutegia markatzea.

### 2.- 3. ZIKLOAN CURRICULUMEN EDUKIAK GARATZEKO E-POSTA, AURKEZPENAK EGITEKO ETA IRUDIAK EDITATZEKO PROGRAMAK ETA DRIVE-N ERABILPENA SISTEMATIZATU. 2. ZIKLOAN E-POSTA ETA GELAKO MATERIAL DIGITALA ERABILI.

#### ONDO EGINDAKOA. HELBURUEN LORPEN MAILA

- Aurten esan dezakegu aurrepauso gutxi eman ditugula alor honetan eta gure lana tresneria eta web orriaren mantenuan oinarritu dela.

#### HOBEKUNTZARAKO PROPOSAMENAK.

- Irakasleak zein ikasleak IKTdun gaitasunetan trebatzea. Horretarako irakasle eta ikasleei baliabideak eskaini behar dizkiegu eta IKTak ikas arlo guztietan txertatu ohiko eta eguneroko tresnak bihurtzeraino.
- IKTak erabiliz geletako lana dinamikoa eta partahartzailea bihurtzea.

#### HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK KONTUAN HARTUZ, LEHENTASUNAK MARKATU

- Ikasleen IKT curriculum adostu: maila/ziklo bakoitzean ikasleek lortu beharreko gaitasun digitala adostu.
- Guztion konpromisoa arlo honetan, duen garrantziaz eta arriskuez ohartuz.
- Argatxako IKT baliabideak errebisatu eta funtzionamendu egokia ziurtatu.

**3.- ESKOLAKO EGUNEROKO BIZITZA, HEZKIDETZA, ERE SISTEMATIZATU BATEAN LANDU NAHIAN, PLANA SORTU ETA ELKARBIZITZARAKO PLANA BERRITUZ, BAT OSAGARRI EGIN.**

**ONDO EGINDAKOA. HELBURUEN LORPEN MAILA**

- Zuzendaritza Proiektuan eta UPean agertzen zen bezala Hezkidetza Plana sortu eta onartuta geratu da.
- Ikastetxea inklusiboa ziurtatzen duten hainbat ekintza antolatu dira: Azaroak 25, Martxoak 8 eta Maiatzak 17. Ekintza hauek antolatu eta garatzerakoan Liburutegiko arduraduna inplikatu da gelako lana arinduz. Asmoa guztiak sistematizatzea.
- “Guraso lagun” proiektua ikasturte hasieran abian jarri zen, baina ez du jarraipenik izan.
- Ikasturte osoan zehar Berritzeguneko mintegian parte hartu dugu eta bertako ekarpenak hausnartu eta landu ditugu.

**HOBEKUNTZARAKO PROPOSAMENAK.**

- Talde kohesioa eta giroa hobetzeko estrategiak landu.
- Hezkidetza Plana bizia izan behar den dokumentua denez, praktikan eta eguneratzen joan.
- Kanpoko laguntza edo proiektu baten murgildu, IK/KI edo NAHIKO adibidez, planean islatuko diren ekintzen normalizazioa lortuz.

**HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK KONTUAN HARTUZ, LEHENTASUNAK MARKATU**

- Ikastetxean dugun Tutoretza Plana ikasgeletan landu
- Behatokia sortu eta martxan jarri ( Hurrengo UPa egin aurretik)
- Talde Dinamizatzailea ere birantolatu
- PEGeko Elkarbizitza ”Bizikasi ” moduluan parte hartu.
- Talde kohesioaren inguruan formazioa jaso, praktikan jarri eta sistematizatu.

**4.- ANIZTASUNARI ERANTZUNA BERMATZEKO ESKOLAK DITUEN PROTOKOLOAK ETA ZEREGINAK IKASTETXEKO PROIEKTU BATEAN BILDU, DOKUMENTU ESTRATEGIKOA BILAKATUZ.**

**ONDO EGINDAKOA. HELBURUEN LORPEN MAILA**

- U.Pean jarri genuen bezala, aurreko ikasturtean hasitako dokumentuaren gainean hausnartu dugu , aldaketa txiki batzuk egin eta txertatuz. Lan hau egiteko “2 irakasle gelan” dituzten esperientziak ikusi (bideoak) eta irakurri genituen ideiak hartuz.

**HOBKUNTZARAKO PROPOSAMENAK.**

- Ikasturte hasierako laguntza/errefuertzoko antolaketa, banaketa egokia eta orekatua egitea.
- Ebaluazio saioak eta gero laguntzak birplanteatu, bakoitzaren hezkuntza eta giza beharrei erantzunez.
- Gure proiektuak indartu, ikasle guztien inplikazioa bultzatuz eta “Elkarrekin bizitzen ikasi” konpetentzia garatuz.

**5.- IRAKURKETA ULERMENERAKO PROZEDURA FINKATU.**

**ONDO EGINDAKOA. HELBURUEN LORPEN MAILA**

- PEKko “Ikasteko irakurri: irakurriaren ulermena” modulua egin dugu eta irakurketaren inguruko hausnarketa egiteko balio izan digu, nahiz eta ikasturte hasieran IUPean jarritako helburua ez bete ( irakurketaren ulermenerako prozedura finkatu )
- Ikastolan formazioa jaso ondoren “Irakurketarekiko konpromisoak” hartu ditugu.

**HOBKUNTZARAKO PROPOSAMENAK.**

- Ikastolan Irakurketa Plana sortzea , gure ikasleen irakurmena hobetzeko eta,aldi berean, irakurzaletasuna bultzatzeko ( Hizkuntza Komunikaziorako Konpetentziaren barne)

**HOBKUNTZA PROPOSAMENAK KONTUAN HARTUZ, LEHENTASUNAK MARKATU**

- Agian, gure lehenengo helburua izan beharko litzateke: ”Nola prestatu gure Ikastolako Irakurketa Plana”
- Baina bitartean, gure Liburutegiak hasierako helburua lortzerako bidean jarraitu behar du ( nahiz eta zati hau ere Planean txertatu behar ), hau da, IRAKURZALETASUNA lantzea.
- Plan hau Ikastolako Hizkuntza Proiektuan atxikituta egon behar du.

**6.- JASANGARRITASUNAREKIN ERLAZIONATUTA ETA BIRZIKLAPENEAN BESTE URRATS BAT EMAN NAHIAN ESKOLAN ONTZI HORIKO ZABORRIK EZ SORTU ETA BESTEAK BIRZIKLATU. AURTEN, BEREZIKI, "Ura eta ibaiak" GAIA LANDU.**

**ONDO EGINDAKOA. HELBURUEN LORPEN MAILA**

- Uraren garrantzia, uraren zikloa eta uraren erabilera gainean egindako hausnarketa.
- Beste ikastetxeekin batera Udal Foroa eta Udal Batzarrean parte hartzea.
- Ikasleen inplikazioa.

**HOBEKUNTZARAKO PROPOSAMENAK.**

- Eskolako hondakinen kudeaketa berriztea.
- Etxetik zakarretara botako den bilgarriak ez ekartzea, zabor zero eskola bihurtzea.

**HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK KONTUAN HARTUZ, LEHENTASUNAK MARKATU**

- Ikastolako zabor kudeaketa sistema berritzea ikasleen esparruetan (gela, patio, ingurua, ...)

## 2.2. Ikasleriaren ikaskuntza-prozesuen ebaluazioa

Aztertutako esparrua	Egoeraren azterketa eta zergatien laburpena	Hobekuntza eta jarraipenerako prosamenak
<p><b>TUTORETZA PLANA</b> Tutoretza etengabeko laguntza-prozesu sistematikoa da eta helburu du ikasleei gaitasunak eskuratzeko laguntza ematea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Orokorrean egiten duguna adierazten du.</li> <li>• Ikasle gehienek helburuak lortu dituzte.</li> <li>• Talde kopurutsuak eta aniztasun handia dugunez, eguneroko lanetan laguntzak izatea komenigarria ikusten dugu denen beharrei erantzun egokia eman ahal izateko.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Oinarri sendo bat eskuratzeko 1. Zikloan ezinbestekoa ikusten dugu laguntzak ondo antolatzea, irakurketa - idazketa prozesua ondo finkatzeko.</li> </ul>
<p><b>EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Aurtengo ikasturtean iaz egindako frogen emaitzak jaso ditugu eta bai gurasoei eta bai ikastetxeoak Klaustroari ezagutarazi ditugu/diegu bakarrik.</li> <li>• Idazmenaren frogak bolondres egin genituen ikastolan eta emaitzak baditugu, baina ondoren ez dugu Hobekuntza Planik egin.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Aurreko Hobekuntza Planaren ebaluazioa zein jasotako emaitzen ondorioak atera gabe geratu dira ( ezjakina, eskakizunik ez,...)</li> </ul>
<p><b>EBALUAZIO SAIOAK</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Urriaren hasieran aurrebaluazio bat egin taldeko ezaugarriak partekatzeko eta behar den eskuhartzea martxan jartzeko ( aurten egin da baina komeni da ondo antolatzea eta sistematizatzea)</li> <li>• Ebaluzio saio kopuru eta prozedura berdinak jarraitu ditugu. Haur Hezkuntzan 2 momentu desberdinetan eta LHn 3tan .</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ebaluzioaren inguruko hainbat atal landu beharrean aurkitzen gara:             <ul style="list-style-type: none"> <li>- Lehendabizi arlo bakoitzeko gutxiengoak (egokitzapenak egin ahal izateko)</li> <li>- Kalifikazio irizpide berdinak erabili behar ditugu (ebaluazio akordioak adostuz)</li> <li>- Promozio irizpideak zehaztu gabe ditugu eta horrek jokatzeko era desberdinetara eramaten gaitu</li> <li>- Konpetentziak ebaluatzeko adierazleak eta prozedura landu behar ditugu.</li> <li>- Etabar</li> </ul> </li> </ul>



IKASLEEN BATZORDEAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gure ikasleen (Agenda 21, Elkarbizitza, Euskaraz Bizi) partaidetza eta inplikazioa geroz eta haundiagoa izaten ari da. Oso motibatuta eta gogotsu ikusi zaizkie.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Partaidetza indartu eta aukerak eman ahala, gelan egin beharreko lanak erraztuko ditu.</li> </ul>
IKTen ERABILERA	<ul style="list-style-type: none"> <li><b>IKT (Informazioaren eta Komunikazioen Teknologia)</b>en inguruan, aurten dugun inpresioa da ez dugula aurrerapen handirik egin.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Teknologia berrietan irakasleok formatzen jarraitu behar dugu.</li> <li>Gure programazioak berritzen goazen heinean, ezin ditugu ahaztu hurrengo kompetentziak: <ul style="list-style-type: none"> <li>➤ “Hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako kompetentzia”</li> <li>➤ “Teknologiarako Kompetentzia”</li> </ul> </li> <li>Eta horrek dakarren ondorengo lana.</li> <li>Adostu beharko genuke, hau da, mailaka edo zikloka lortu beharreko gaitasun digitala.</li> <li>Beharrezkoa jotzen dugu, irakasle eta ikaslearen artean DRIVE aplikazioaren erabilera.</li> <li>Ikastetxean sortuta ditugun WEB orria eta BLOGAK eguneratuta mantentzen ditugun gara, behar den laguntza eskeiniz.</li> </ul>
ERREFORTZU ORDUAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>Aurten ere Hezkuntza Premia Bereziko ikasleek, dagozkien laguntzak jasotzeaz gain, gela gehienetan irakasle bat sartu izan da, asteen 2 ordu eskeiniz.</li> <li>Hala eta guztiz ere, Indartze Neurri guztiei ez diegu erantzuten.</li> <li>ALEa saio batzuk gela barruan lan egitea oso positibotzat jo dugu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ezinbestekoa ikusten dugu, bai Hezkuntza Premia Bereziko ikasle edota edozein motako laguntza behar duten ikasleekin lan egiten dugunon arteko <b>koordinazioa</b> ( Norbanakoaren Egokitzapena, materialaren prestaketa, gurasoei orientabideak, ...) .</li> <li>Premia Bereziko ikasleekin batzuetan ez dugu garbi nork bideratu, nora, ..., beraz, kurtso hasieran argitzea komeni da.</li> </ul>

<p>URTEKO EKINTZA OSAGARRIEN PLANIFIKAZIOA</p>	<p><b>KURTSO HASIERAN PLANTEATUTAKO IRTEERA DIDAKTIKOAZ GAIN:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Sosola ( ogigintza) 6. maila</li> <li>➤ Itsaspeko bihotza, areto literarioa (4. maila)</li> <li>➤ Tramankuluak ikasgelan, Jose Ramon Soroiz. Euskararen motibazioa( 5. maila)</li> <li>➤ Liburu artean (Udal liburutegia) (6. maila)</li> <li>➤ Irteera Pedagogikoak (Lehen Hezkuntza eta HH osoan), hau da, aurreikusitako ekintza guztiak burutu dira.</li> <li>➤ ERREBAL 5. eta 6. mailako ikasleek</li> <li>➤ GIPIZKOA LAGUN (5.maila)</li> <li>➤ AGLE. Genero indarkeriaren aurkako hezkuntza ( 1.,3. eta 5. mailak) / Gatazken ebazpena ( 2., 4. eta 6. mailak)</li> <li>➤ Berdintasun tailerra 1h, 3.mailakoek (ERANTZUNKIDE)</li> </ul>	<p>Urte osoko ekintzak, aldez aurretik ezagutu arren, batzutan ez da posible antolaketa orekatua egitea, datak jartzen dizkigutelako edo ikasturteko momentu batzuetan bestelako ekintzak ere elkartzen zaizkigulako.</p>
<p>IKASLEEN EMAITZAK</p>	<p>Hona hemen gure ikastetxeko datuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Lehen Zikloa %94,7 gainditutakoek eta %100 igaro dute.</li> <li>• Bigarren Zikloa % 95,33 gainditutakoek eta %98,66 igaro dute.</li> <li>• Hirugarren Zikloa %90,10 gainditutakoek eta %98 igaro dute.</li> </ul> <p>Emaitzen analisisa: Bai 1. eta 3. Zikloan gaindituen kopurua jaitsi egin da, beraz, hausnarketa eskatzen du zeintzuk izan diren arrazoiak eta neurriak hartzeko.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Aurten ere baloratu behar izan ditugu gure ikasleek lortutako kompetentzien maila baina horretarako aurretiko lana ez dago guztiz landuta, hau da, OINARRIZKO KONPETENTZIAK BALORATZEKO ADIERAZLEAK eta PROZEDURA.</li> <li>• Dena den, atal hau aurretik aipatutako Ebaluzioarekin zerikusia du eta ziur, aurrerantzean landuko dugula.</li> </ul>

### 3.1.1 Antolaketa eta funtzionamenduaren aspektua

	Alderdi positiboak	Zailtasunak eta Zergatiak	Hobekuntza proposamenak
<b>Tutoretzen banaketak</b>	Tutoretzen banaketa egiterakoan hainbat irizpide kontutan izaten dira ( irakasle batek ziklo osoa egitea, taldearen ibilbidea/ezaugarriak,...)	Hala ere batzutan ezin dira errespetatu.	Ahal den heinean arreta jartzen jarraitu.
<b>Ordutegiak</b>	Orokorrean ondo baloratuak izan dira ( mailako koordinazioak, ziklo bilerak, Tutore eta Laguntza Taldekoekin koordinazioa,...)	HHn ordutegi bat (bi eraikin desberdin) LHn 3 ordutegi desberdin(eraikin bat) Koordinatzeko arazoak eta bestalde, eskolak kohesioa galtzen du. Gero eta baldintza gehiago kontutan izaten ditugu baliabideak ondo aprobetxatzeko. Denbora falta mailaka eta zikloka hainbat gai lantzeko sakonki.	Gure artean koordinatzeko aurkera gehiago.
<b>Tutoretza Plana</b>	Funtzionala izan behar du, gelakideen arteko harremanak sendotzeko onuragarria baita eta talde kohesioa ahalbideratzen duelako.	Irakasleek dokumentua bere osotasunean ez dute ezagutzen, programaziorik ere ez dugu eta egunerokotasunean gertatutakoetan oinarritzen gara. Behar bada ez zaio daukan garrantzia ematen.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Tutoretza Plana berrikusi eta lantzea.</li> <li>• Arazoak konpontzeko estrategia desberdinak landu.</li> <li>• Aholkulariak planaren berri izan eta jarraipena egin.</li> </ul>

<p><b>Esklusiben banaketa</b></p>	<p>Ikaskuntzaren aspektu didaktikoak lantzeko, eztabaidatzeko,...guneak eskaintzen dizkigu.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ordu-tegi desberdinak eta esklusibak banatzeko zailtasunak. Antolaketa ondo zaindu behar da bilerak eraginkorrak izan daitezten eta denbora behar bezala aprobetxatu.</li> <li>• Zikloen arteko koordinazioa eta komunikazioa zaila izan da ordu-tegi desberdinak ditugulako.</li> </ul>	<p>Denon iritzia kontutan izan baina aldi berean, eskolaren eta ikasleen onura begiratzea izango dugu helburu.</p> <p>Proposatutako lanen antolaketa eta jarraipena egiteko, planifikazioa koadroa azaldu, lagungarria izango baita.</p> <p>Mailako eta Zikloko lanak egiteko ezinbestekoa da KOORDINAZIOA mantentzea (gustuko edo ez izan)</p> <p>Ezinbestekoa deritzogu astelehenetan ordu eta erdiko osagarria errespetatzea elkarlana bermatzeko.</p>
<p><b>Laguntza eta errefortzuen eraginkortasuna</b></p>	<p>Gela guztietan irakasle bat sartu izan da errefortzu saioak ematera (astean 2 ordu)</p>	<p>Hala eta guztiz ere, saiatu arren ez diegu behar beste lagundu. Ikasle kopuru handia denez eta dauzkagun giza errekurtsoak ikusiz, ez gara heltzen. Tutorea eta laguntza eman behar duen irakasleen artean bartzutan koordinazio falta.</p>	
<p><b>Organo kolegiatuen funtzionamendua (OOG, Klaustroa, Zuzendaritza ,...)</b></p>	<p>Funtzionamendurako organo baliagarriak.</p>	<p>Eraikin desberdinak izatea antolaketa oztopatzen du.</p>	<p>Guztion inplikazioa eta motibazioa mantentzea ezinbestekoa dugu.</p> <p>Gurasoen partaidetza gehitzea.</p> <p>Adostu zein bide jarraitu behar den batzordeetako informazioa gurasoei zabaltzeko eta gurasoen iritzia Batzordeetan azaltzeko.</p>

<p><b>Pertsona bakarreko karguen funtzionamendua (Zuzendaria, Ikasketa Burua eta Idazkaria)</b></p>	<p>Eskolako ikuspegi orokorrarekin jabetzen gara.</p>	<p>Lanaren pilaketa, hainbat momentutan gauza asko une berean eskatzen digutelako.</p>	<p>Bakoitzaren funtzioak argi azaldu eta kohesioa lortzeko asmoz, gure nahiak eta asmoak garbi helaraztea.</p>
---	---	--	--

### 3.1.2. Esperientziak, programak eta proiektuak

Esperientziak, programa edota berrikuntzak ikastetxean

#### KALITATE KUDEATZEKO SISTEMA

Ondorioak	Jarraitzeko proposamenak eta baldintzak
<ul style="list-style-type: none"><li>Dokumentazio Kudeaketarako baliagarria izateaz gain, hilean behin egiten diren bileretan gelako programazioak, arazo egoerak, unitate didaktikoak, ... lantzea baliagarria izan zitekeen berrikuntza pedagogikoan aurrera jarraitzeko.</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>Bilerak ezinbestekoak dira eta mantentzea oso komenigarriak ikusten ditugu ( beste eskoletako irakasleagoa eta beraien lan esperientziak ezagutu eta konpartitzeko ezinbesteko aukera)</li></ul>

#### BERTSOLARITZA

Ondorioak	Jarraitzeko proposamenak eta baldintzak
<ul style="list-style-type: none"><li>Ekintzaren helburua bete da: ikasleagoaren euskararen ahozko erabilera areagotzea.</li><li>3. ziklokoek hamabostero eta euskarako klasean Bertsolaritza saioa jaso dute, beraien programa garatuz. Ikasleak oso gustura aritu dira eta hainbat ekintzetan parte hartu dute (San Andres Bertso paper Lehiaketa, Kurtso bukaerako jaialdia Koliseoan eta Ikastolakoan baita)</li><li>Bestalde, euskararen kultur altxor hau (bertsolaritza) ezagutzeko aukera izan dute.</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>Gela bakoitzeko tutorearen inplikazioa nabarmena izan da eta oso positibotzat jo dute, beraz horrela jarraitzea espero dugu.</li></ul>

## LIBURUTEGIA (IRAKURKETAREN ZALETASUNA)

Ondorioak	Jarraitzeko proposamenak eta baldintzak
<ul style="list-style-type: none"><li>• Hamabostero, ikasleek liburutegiko arduradunarekin, irakurketaren zaletasuna bultzatzeko saioa izan dute( material berriak,...)</li><li>• Hainbat trebetasun garatu izan dituzte (material egokia nola aukeratu, informazioa aurkitzeko bide desberdinak, gaiarekin lotutako bideoak ikusi,...)</li><li>• Data zehatz batzutan hainbat ekintza osagarri antolatu dira bertan (Azaroak 25, San Andresak, Halloween, inauteriak, Martxoak 8, Liburuaren eguna, Hezkuntzaren aldeko Munduko kanpaina,LGTB Maitzak 17, ...)</li><li>• JOSE RAMON SOROIZ (Euskararen motibazio saioa: “Tramankuluak eskolan”)</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Ikastolan Irakurketa Plana egiten dugunean, bertan zehaztu beharko genuke (Irakurri ikasteko eta irakurzaletasuna) eta horrek lagunduko liguke esparru honen helburuak ere definitzera.</li><li>• Liburutegian egiten diren ekintzak , gelan egiten direnen osagarriak izan beharko lirateke.</li><li>• Liburutegia irakaslegoaren proposamen eta premiei irekitako esparrua da.</li><li>• Liburuak erosterakoan Hezkidetzaren ingurukoak ere kontutan izaten ditugu.</li></ul>

## BULARRETIK MINTZORA

Ondorioak	Jarraitzeko proposamenak eta baldintzak
<ul style="list-style-type: none"><li>• Aurten 2. Ikasturtea , “BULARRETIK MINTZORA” egitasmoa izan dugula ( 2-6 urte). Proiektu honen helburua haurrengan irakurketa ohiturak sustatzea da.</li><li>• Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan baino era sistematikoan landu dute eta U.Detan txertatuta dute.</li><li>• LHn oraindik ez dugu lortu sistematizazio hori.</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Proiektua 3 urterako denez, jarraituko dugu lanean</li><li>• LHn eta HHn “motxila ibiltaria”rekin jarraituko dugu hasiera-hasieratik.</li></ul>

**GIPUZKOA LAGUN****Ondorioak**

- 5. mailako ikasleek , “Etorkizuna eraikiz” proiektuan parte hartu dute, Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatuta.  
Hainbat tailer eta dinamiken bitartez, bizi garen testuinguru ikertu eta hausnartzeko aukera izan dute. Baita bizi diren herri eta lurraldeari buruzko ekarpenak egin dituzte, hau da, geure herriaren etorkizuna eraikitzeke zer esanik badugula.

**Jarraitzeko proposamenak eta baldintzak**

- Ez dakigu jarraipena izango duen baina prest egongo ginateke jarraitzeko.

**ERREBAL****Ondorioak**

- Ikastolako 5. eta 6. mailako ikasleek Errebal balioanitzeko ekipamenduaren izen/logotipo irudi korporatiboaren lehiaketan parte hartu dute.
- Oso positibotzat jo dugu ekintza ( izenaren aukeraketa eta ondoren beste ikastetxe batek logoa sortu) , azkenik hautatutako izena hauexek izan da: “ERREBAL PLAZIA”

**Jarraitzeko proposamenak eta baldintzak**



### 3.1.3. Prestakuntza eta garapen profesionala

#### Irakasleriaren ikastetxez kanpoko prestakuntza ekintzak lan-ordutegian

Irakaslea/Taldea	Tokia eta eguna	Hobekuntza proposamenak
Kurtso hasieran irakasle berriei, Ikastetxeko proiektuaren inguruan, antolakuntza,...	Ikastetxean bertan	Ez da nahikoa egun batekoa, kurtsoan zehar ere erreferenteak behar dituzte. Pertsona hauen lana eta mailako irakaslen koordinazioa ezinbestekoa da.
IKT formakuntzak saio trinkoak ikastetxeko irakasleentzat	Ikastetxean bertan	<b>Aurten ez dira egin eta beharrezkoak ikusten ditugu aurrepausoak emateko.</b>
Zuzendaritzako norbait edota Kalitateko arduraduna	Arrasateko Institutuan Hilean behin	Datorren ikasturtean ere jarraitzea, oso baliagarriak baitira.
L.Hko Kontsultoreen mintegia	Berritzegunean Hilean behin	Jarraitzea (Agian Kontsultore berria izango dugu ikastetxean eta )
L.Hko PT irakasleen mintegia	Berritzegunean Hilean behin	
ACEX liburutegiko arduraduna (mintegia)	Donostian Hiruhilabetero	Berdin
Zuzendarien mintegia	Berritzegunean Hilean behin	Jarraituko dugu.
Agenda 21(arduraduna)	Debegesan Hilean behin	Jarraituko dugu
Hezkidetza (mintegia)	Hilean behin	Jarraituko dugu.
PEG “ <i>Konpetentziak garatzen laguntzeko marko orokorra</i> ”	3 saio	
PEG “ <i>Hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako konpetentzia: irakurriaren ulermena</i> ”	3 saio	Irakurketa Plan batean txertatzea.

### 3.1.4 Irakasleriaren koordinazioa

Lan taldeak	Partaideen kopurua	Taldearen funtzionamendua (maiztasuna, dinamika, gogobetetasuna)	Egindako ekarpena	Hobekuntzarako proposamenak
Talde Pedagogikoa	Zuzendaritza taldea LHko 3 Koordinatzaile HHko 1 koordinatzaile Aholkularia	Astean behin burutu da, astelehen arratsaldean. Eskolan sortzen diren gai Pedagogikoak eta antolakuntzari dagozkionak ( jaialdi, ...) jorratu dira. Bileren eraginkortasuna lortze aldera gaiordena idatzia eramaten dugu.	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Mailetako/Zikloetako iritziak, beharrak eta proposamenak bideratzea.</li> <li>➤ Erabaki pedagogikoak hartzea</li> <li>➤ Ikastetxearen planifikazioaz arduratzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>. Zuzendaritzan hainbat erabaki hartu baino lehen Ziklo bileretan ondo aztertu, ondoren denon inplikazioa eskatzen baitute.</li> <li>. Ikastetxean ditugun hainbat proiektu eta lan aurrera eramateko, koordinatzaileek zikloetan egin beharreko lanaren sustatzaileak izaten jarraitzea.</li> <li>. Talde Pedagogikoko Koordinatzaileen lana indartzea.</li> </ul>
Mailakako koordinazioa	3 tutoreak + Koordinatzailea? + Laguntzako irakaslea?	Astero ordu bat Mailan sortzen diren gaiak aztertu eta bideratu.	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Mailako planifikazioa antolatu</li> <li>➤ Ekintza osagarriak zehaztea eta antolatzea</li> <li>➤ Mailako gatazkei aurre egin</li> </ul>	. Mailako koordinazioa hain beharrezkoa izanik, bilera hauen betetzea eta eraginkortasuna berraztertzea komeni da.
Zikloko bilerak	6 Tutore 2, 3 espezialista, hau da, ziklo horretan lana egiten duten irakasle guztiak.	Hilean 2, 3 aldiz gutxi gorabehera	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Talde Pedagogikotik heltzen diren gaiak landu.</li> <li>➤ Zikloko iritziak, beharrak eta proposamenak landu.</li> </ul>	.Koordinatzaileari informazioa idatziz ematen zaionez, zikloan erabaki nola egin horren transmisioa.

<p>Lan taldeak /Mintegiak</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Kalitatea</li> <li>• Euskaraz Bizi</li> <li>• Agenda 21</li> <li>• Elkarbizitza</li> </ul>	<p>3 partaide 4 partaide 4 partaide 3 partaide</p>	<p>Astero ordu bat Astero ordu bat Astero ordu bat Astero ordu bat</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Arloaren koordinazioa</li> <li>• Ekintza osagarriak antolatzea/ planifikatzea</li> <li>• Proposamenak luzatzea</li> <li>• Emaitzak edota balorazioak egitea</li> <li>• Landutako gaiak Eskola Komunitateko partaide guztion ardura dela sentitzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Proposatzen diren ekintzetan lehentasunak ondo markatu eta irakaslegoa informatu (UP, Koordinatzaileen bidez, irakasle gelako panelean...)</li> <li>• Eskola komunitatearen inplikazioa ziurtatu.</li> </ul>
<p>IKT</p>	<p>4 partaide</p>	<p>Astero ordu eta erdi</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Aurten irakasleei ez zaie formakuntza espezifikoa eskeini.</li> <li>• IKTn erabilera sendotzearen nahia izanik, ez dugu lortu gurer lan taldetik.</li> <li>• Web orria eguneratuta mantentzea.</li> <li>• Mekanografia saioak aurten ere eskeini dira 3. eta 4. mailako ikasleei.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Korreoen erabilera komunikaziorako ziurtatu beharko genuke ( bai irakasle, bai ikasleen artean)</li> <li>• Blogak maila guztietan erabili, hornitu,....</li> <li>• Drive-n erabilera ( irakasle eta 3. zikloko ikasleen artean)</li> <li>• IKT-en arriskuak</li> <li>• Formakuntza zehatza</li> <li>• Web-a aberastea.</li> </ul>

## 3.2. Irakaskuntza-jarduera osagarrien programaren ebaluazioa

### Programaren balorazio kualitatibo eta kuantitatibo

Zailtasun nagusiak	Zergatiak
<ul style="list-style-type: none"><li>• Askotan ezin ditugu hainbat ekintza bateratuak egin.</li><li>• Kurtsoan zehar ekintza osagarriak modu orekatuan banatzea (sarritan hiruhileko bukaeretan ekintzak gehiegi elkartzen zaizkigu)</li><li>• Ekintza osagarrien helburuak ondo definitzea, arloen arteko lotura izan dezaten.</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Arrazoiak:<ul style="list-style-type: none"><li>- Estructura (eraikin desberdinak)</li><li>- 4 ordutegi (HH eta LH)</li><li>- Ikasle kopurua</li><li>- Kokapena (autobus beharra)</li><li>- Garraioaren kostea</li></ul></li></ul>

### Programaren balorazio orokorra, ondorioak eta hobekuntza proposamenak

<ul style="list-style-type: none"><li>• Kurtso hasieran planteatutako ekintza guztiak burutzeaz gain, ondoren jasotako beste hainbat ekintza ere burutu ditugu.</li><li>• Ekintza osagarriak proposatu baino lehen, lehentasunak ondo finkatu, arloarekin lotura, ikasle kopurua, ekintza egiteko garaia, aurrekontua,... eta ondoren erabakia hartu.</li><li>• Ekintzak egiteko, irakasleen arteko koordinazioa, ardurak edo eginbeharrak ahal den neurrian, modu egokian banatu.</li></ul>
--

## 4. Eskolaz kanpoko jardueren planaren ebaluazioa

### Programaren balorazio kualitatiboa eta kuantitatiboa

#### MULTIKIROLA eta MENDIZALETASUNA

Zailtasun nagusiak	Zergatiak
<ul style="list-style-type: none"><li>Gero eta ikasle gehiago apuntatzen dira eta ikastetxean bertan ezin dute egin. Hau dela eta, hauetako batzuk Mogel Isasin eta Kiroldegian egiten dute.</li><li>Hori dela eta izugarrizko antolaketa eskatzen du eta beharrezkoa ikusten dugu ikastetxeko pertsona batek horren ardura hartzea ( multikirola + mendia)</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>Gero eta talde handiagoak dira eta toki faltan aurkitzen gara.</li><li>Ditugun ordutegiak eta etxera itzultzeko autobusa behar izateak, beste eragozpen batzuk dira.</li><li>Gure patioaren espazioa ( bazkal osteko aisialdia kenduz) erabili beharra multikirolaren entrenamendurako.</li></ul>

#### LIBURUTEGIA

Zailtasun nagusiak	Zergatiak
<ul style="list-style-type: none"><li>Bazkal ostean ikasleek denbora laburra dute, batez ere, 1. ziklokoek (1.eta 2. mailak), antolatzen ditugun tailerretarako.</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>Jantokian dugun sistema, ikasleak banaka banaka sartzera behartzen ditu eta horrek sarrera luzatzen du, gelditzen zaien denbora murriztuz.</li></ul>

### Programaren balorazio orokorra, ondorioak eta hobekuntza proposamenak

<ul style="list-style-type: none"><li>Multikirola eta liburutegia, oso ondo baloratuak dira eta jarraitzeko proposamena dago, nahiz eta urteroko antolaketan aldaketak egin behar.</li><li>Familiak eta ikasleek hurrengo ikasturtea hobeto antolatzeko, eskola kiroleko izen emateak ekainean egiten dira eta oso ondo joan da.</li><li>Izen emate orriak jasotakoan, 2. mailako gurasoekin bilera egiten da eta ikasturteko plangintza zein izango den azaldu.</li><li>Mendizaleatasunaren izen ematea irailean egiten da baina iaz erabili zen prozedura oso positibotzat jotzen dugu ( Guraso Elkarteko blogean ) eta nahi izan zuenak ikastolan bertan.</li></ul>
--

## 5. Eskolako zerbitzuen ebaluazioa

### Zerbitzuaren balorazio kualitatiboa

	Zailtasun nagusiak	Zergatiak
JANTOKIA	<ul style="list-style-type: none"> <li>Argatxako jantokian, denbora gutxi dago txanda bakoitzarentzat. Bestalde, oso deserosoa da ikastetxetik irten beharra hainbeste ume txikirekin, batipat, eguraldi txarra egiten duenean.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Argatxan ez dago jangelarik ikastetxe barruan. Ume asko daude egunero bazkaltzen. Jangela oso txikia da eta bi txanda egin behar dira. Eguraldi txarrarekin, umeek daramaten txamarra jantzi eta erantsi egin behar dute.</li> </ul>
	<ul style="list-style-type: none"> <li>Iturburuko ikasleak 3 txandatan sartzen dira.</li> <li>Bazkal osteko patio espazioaren antolaketa gero eta zailagoa egiten zaigu ( multikirolaren entrenamenduak bertan direlako)</li> <li>Elkarbizitza hobetzeko ezinbestekoa den errespetoa lortzea.</li> <li>Euskararen erabilera kezkatzekoa</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Iturburun dagoen ikasle kopuruak eta eguerdiko tarte laburrak, 3 ordutegi eta jantokiko 3 txanda egitera “behartu” gaitu eta horrela daramazkigu azken 5 urteak.Honek monitoreen egoera laborlean aldaketak eta atsekabeak ekarri ditu.</li> <li>Batzutan ikasleen artean eta beste batzutan monitoreekiko errespetu faltak adierazten dituzte eta hartzen diren neurri hezitzaileek ez dute lortu nahi genituen helburuak.</li> </ul>
GARRAIOA	<ul style="list-style-type: none"> <li>Aurtengo ikasturtean Iturburuko garraioak 2 konpainiekin jarraitu dugu.</li> <li>Eta antolakuntza beti bezala ez da erraza: erabiltzaileen helbideak eta geltokiak direla tarteko, ordutegiak, ... antolakuntza zehatza eskatzen du.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Delegaritza kontratazio honetaz arduratzen da ( Iturburuko garraioa soilik)</li> </ul>
LIBURUTEGIA	<ul style="list-style-type: none"> <li>Bazkal ondorengo tailerrak antolatzerakoan.</li> <li>Liburutegia era librean ezin eskeintzea.</li> <li>Jolasorduan eta eguraldi txarra denean, haur kopuru handia.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Denbora gutxi eta talde asko.</li> <li>Ikastetxeko antolaketa</li> </ul>

<b>ZAINZA HH</b>	<b>MITXELETAK</b> eskeintzen duen goizeko zaintza zerbitzua pribatua da ( Argatxan zein Sansaburun)	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ikastolak gelak edota lekua uzteaz arduratzen da bakarrik. Esperientzia eta langileak bikainak.</li> </ul>
----------------------	---	---

### Zerbitzuaren balorazio orokorra, ondorioak eta hobekuntza proposamenak

#### JANTOKIA ETA GARRAIOA

- Gure ikastetxearen kokapena kontutan izanda, garraioa eta jantokia behar-beharrezkoak ditugu.
- Ikasturtearen hasieran mailetako guraso bilera egiten denean gurasoek jantokiari buruzko informazioa eskatzen dute baina zaila egiten zaigu nola heldu beraiengana behar duten informazioa ( teorikoa baino gehiago baita).
- Jangelako elkarbizitza hobetzeko:
  - Jangelan lan egiten duten guztiekin egiten diren bileretan gai hau beti “presente” izan
  - Langileentzat formazio propioa eskatu.
- Jantokiko espazio eta momentuoro euskararen erabilera sustatzeko, monitoreen inplikazioa ezinbestekoa.

#### LIBURUTEGIA

- Liburutegia oso ondo baloratzen da. Eskolako talde guztiek erabiltzen dute liburutegia. Hamabostero Euskarako klasean liburutegira joaten dira irakurketaren zaletasuna lantzeko. Jolasorduetan baita erabiltzen dute lanak egiteko, irakurtzeko, etabar. IKTak erabiltzeko aukera ere. Eta bazkaldu ondoren, tailerrak eskaintzen dira.
- Liburu berriak erosten dira eta erosten jarraituko dugu ( irakasle zein ikasle aukera gehiago izan dezagun lanerako eta irakurtzen disfrutatzeko)
- Mailegu sistema ondo funtzionatzen du, bai ikasleek etxera eramaten dituzten liburuekin, baita geletako maileguekin.

## 6. Ekonomia - kudeaketarako planaren ebaluazioa

Ondo ibili dena	Hobetu beharrekoa
Aurreikusitakoa ondo gauzatu da.	Urtero bezala, material funjiblea eta fotokopiak, zentzunez eta aditasunez erabili behar dugu, behar dena bakarrik gaztatuz eta gelak biltegiak ez bihurtuz.

### Hobekuntza proposamenak

Hurrengo ikasturteko lehentasuna Haur Hezkuntzako premiei erantzutea izango da.



## 7. Hezkuntza-komunitateari informazioa helarazteko planaren ebaluazioa

Hezkuntza-komunitateari informazioa helarazteko bideak: bilerak, elkarrizketak, informeak, triptikoa, web gunea, posta elektronikoa, posta arrunta, ikasleen agendak,...

Goian aipatutako iturri/bide guztiak erabili ditugu:

- Bilerak: klaustroak, Ziklo bilerak, Zentro bilerak,...  
Langileekin: autobusa, jantokia,...  
Gurasoekin
- Gurasoekin elkarrizketak, ikasleen agendak,...
- Informeak hiruhilero. HHan birritan.
- Web gunea: <http://www.mogelikastola.hezkuntza.net>.
- Hezkuntza Komunitate osoari informazio puntuala, twitter bitartez: @mogelikastola
- Ikastolako triptikoa (urtean behin, matrikula garaian)
- Orokorrean, denak ondo baloratuak izan dira: edukia, maiztasuna,...

IUPa ezagutu arazteko eta aprobatzeko estrategiak

	BAI	EZ	Zergatia	HOBKUNTZAKO PROPOSAMENAK
IKASLERIA	X		Hainbat proiektuen ezagutzaz jabetzeko.	Positibotzat baloratu dugu. Tutoretza orduak oso baliagarriak <b>Ondo legoke, ikasleriari IUPa ezagutu arazteko modua aztertzea.</b>
IRAKASLERIA	X			
FAMILIAK	X			
OOG-OMR	X			
EZ DOZENTEAK	X			
ADMINISTRAZIOA	X			
BESTE ERAKUNDE	X			

## 8. IUPren garapenaren jarraipenaren ebaluazioa

	A	B	Hobekuntza proposamenak
	BAI	EZ	
<b>Aurreikusitako tarteko ebaluazioak egitea</b>		X	<ul style="list-style-type: none"> <li>Datorren ikasturteko IUPren garapenaren jarraipenaren planifikaziorako, adierazle zehatzak, jarraipen datak eta ezagutu arazteko estrategiak hobetu beharrean aurkitzen gara.</li> <li>Jarraitzen dugu duela 2 urte, “Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuko (IHP) Ikastxearen zeregina, helburuak eta ildo estrategikoak” egin ondoren, IUPean jarritako konpromisoa bete gabe ( III eranskina). Ea heltzen diogun!</li> <li>Eskola komunitateko partaideei inplikatu eta jakinarazi IUPren garapenaren inguruan.</li> </ul>
<b>Erabilitako metodologiaren baliotasuna: datuen azterketa, akordioak ...</b>		X	
<b>Eskolako komunitatearen partaidetza</b>	X		
<b>OOGari informazioa</b>	X		
<b>Klaustroari informazioa</b>	X		

## 9. Ondorioak eta hobekuntza proposamenak

Ondo ibili dena	Hobetu beharrekoa
<p>Orokorrean ondo funtzionatu dugula esan genezake:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Antolaketa eta funtzionamendua egunerokotasunari erantzuna ematen.</li> <li>• Ikasleen emaitzak, orokorrean onak izan dira.</li> <li>• Familiak eta gure arteko harremanak gehitzen doaz.</li> <li>• Beste erakundeekin harremanak</li> <li>• Ekintza osagarriak: anitzak, aberasgarriak, planifikatuak,..</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hainbat momentutan, geletan ekintzen pilaketa egoten denez, lehentasunak markatu edo kontutan izan planifikatzerakoan ahal den heinean.</li> <li>• Irakasleen arteko koordinazio bertikala ere ziurtatu beharko genuke eta elkarlanean aritu.</li> <li>• Ikasleriaren aniztasuna kontutan hartuta banakako erantzuna emateko neurriak ziurtatu, NPak eginez (aurreko ikasturteetako gainditu gabeko arloak, edozein zailtasun dituztenak,...)</li> <li>• Jardueretako prestakuntzan epe zehatzak eta adierazle argiak jartzea eta betetzea.</li> <li>• Bileren eraginkortasuna bermatzea.</li> </ul>

### Hobetzeko proposamenak [datorren ikasturteari begira]

<ul style="list-style-type: none"> <li>• Datorren ikasturteko erronkak: <ul style="list-style-type: none"> <li>- IPCa osatzen jarraitu: <ul style="list-style-type: none"> <li>. Programazioak lantzen jarraitu</li> <li>. Ebaluazioa atala landu</li> <li>. Arazo egoeratik abiatuta U.Dak berri eta bertan AHOZKOTASUNA txertatu.</li> </ul> </li> <li>- Bularretik Mintzora (HH eta LHko 1. Zikloan), sistematizatu eta U.Detan ere txertatu.</li> <li>- Talde kohesioa lortzeko estrategiak landu.</li> <li>- Irakurketa Plana egin.</li> <li>- Eta datozenak datozela, sortzen eta heltzen zaizkigunei aurre egiten saiatuko gara.</li> </ul> </li> </ul>
--